**ALKATETZAREN PROPOSAMENA ZERGA ETA TASEN EGUNERAKETA**

Azken urteotan Udalbatza honek akordioak adostu ditu hainbat zerga eta tasa izoztera begira. Erabaki hauek gizarteak aurre egin behar izan dien hainbat ekonomia- eta osasun-krisi egoeraren eraginez hartu dira. Hala ere, zerga-politika horiek nabarmen murriztu dute Udalaren diru-bilketarako ahalmena.

Egoera horren aurrean, eta politika horiek udal diru-kutxetan izan dituzten ondorio larriak arintzeko asmoz, duela urtebete Udalak erabaki zuen 10 urteko zerga- eta tasa- izozte egoerari amaiera ematea eta 2023ko abuztuko Kontsumo Prezioen Indizearen (aurrerantzean, “KPI”), % 2,6, arabera eguneratzea.

Egoera honek joera-aldaketa ekarri bazuen ere, datuek agerian uzten dute aipatutako neurria ez dela nahikoa 10 urtetan sortutako pobretze-egoerari aurre egiteko.

Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako datuen arabera, 2014ko maiatzetik 2024ko maiatzera bitarteko KPIa % 22,7 igo da.

Hamar urte hauetan, igoera hau islatu izan da, besteak beste, udal aurrekontuaren I. Kapituluan (Pertsonala), II.ean (Gastu Arrunta) eta IV.ean (dirulaguntzak familiei,

**PROPUESTA DE ALCALDIA – ACTUALIZACIÓN DE IMPUESTOS Y TASAS**

En los últimos años esta Corporación ha adoptado acuerdos dirigidos a la congelación de los diferentes impuestos y tasas. Estas decisiones han venido motivadas por las diferentes situaciones de crisis económica y sanitaria a las que la sociedad ha tenido que hacer frente. No obstante, estas políticas fiscales han supuesto una merma considerable en la capacidad recaudatoria de este Ayuntamiento.

Ante esta situación y con la intención de paliar los graves efectos que estas políticas han tenido en las arcas municipales, hace un año este Ayuntamiento acordó poner fin a 10 años de congelación de impuestos y tasas y actualizar las mismas conforme al Índice de Precios al Consumo (en adelante, “*IPC*”) del mes de agosto de 2023, es decir, un 2,6%.

Si bien esta decisión supuso un cambio de tendencia, los datos evidencian que dicha medida no resulta suficiente para revertir la situación de empobrecimiento producida a lo largo de 10 años.

Conforme a los datos que publica el Instituto Nacional de Estadística, el IPC correpondiente al periodo mayo de 2014 – mayo de 2024 ha experimentado un incremento del 22,7 %.

Durante estos 10 años, este incremento se ha venido reflejando, entre otros, en los Capítulos I (de Personal), II (de Gasto Corriente) y IV (de subvenciones a familias, empresas y colectivos) del

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2ec634377f6fb95002559ad9736bb74f2e48845d**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400003549**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| --- | --- |
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **24/07/2024 12:51:46** |

enpresei eta kolektiboei), baita kontratu publikoen kostuan, eta ondorioz, Udalak egiten dituen obretan eta eskaintzen dituen zenbitzuetan.

presupuesto municipal, asi como en el coste de los contratos públicos y, en consecuencia en el coste de las obras que realiza y en los servicios que presta el Ayuntamiento.

Hori horrela, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoen kalitatea mantentzeak - kontuan izanda kosteen garestitzea - hainbat udal-tributu errebalorizatzea dakar. Hala ere, proposatutako eguneratzeak ez du tributu horien kostuaren igoera estaliko.

Por ello el mantenimiento de la calidad de los servicios públicos prestados por el Ayuntamiento, teniendo en cuenta el encarecimiento de los costes, obliga a tener que revalorizar los distintos tributos municipales, sin que la actualización que se propone llegue a cubrir el aumento de coste de los mismos.

Aurretik esandako guztia kontuan hartuta, behin gizarte- eta ekonomia-normaltasuna berreskuratuta, eta helburua udal diru-kutxen murrizketari aurre egitea izanik, zergak eta tasak % 4 eguneratzea planteatzen da, 2024ko maiatzeko KPIari ( % 3,6) % 0,4 gehituta, udal ogasunaren bilketa-ahalmena eta beharrezko kaudimena arian-arian berreskuratzeko helburuarekin.

Teniendo en cuenta todo lo anteriormente expuesto, una vez recuperada la normalidad social y económica, y con el objetivo principal de revertir la situación de merma de las arcas municipales, se plantea una actualización de los impuestos y tasas del 4%, correpondiente al IPC de mayo de 2024 (3,6%) incrementado en un 0,4%, con el objetivo de recuperar paulatinamente la capacidad recaudatoria y la solvencia necesaria de la hacienda municipal.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek zergak eta tasak % 4 eguneratzea proposatu du (2024ko maiatzeko KPIaren baliokideari % 0,4 gehituta). Tarifa hauetan, hala ere, ez da igoera aplikatuko: prezio publikoetan eta zinema komertzialaren tasetan, merkatuen zerbitzuan, ibilgailuak bide publikotik erretiratzean eta horien gordailuetan, kiroletako udal-patronatua, bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzuan, tutoretzapeko etxebizitzetan eta harrera-pisuetan, eta armagintzaren museoan emandako zerbitzuetan.

Por todo ello, esta Alcaldía propone una actualización de impuestos y tasas del 4% (equivalente al IPC del mes de mayo de 2024, más un 0,4% adicional), a excepción de las tarifas establecidas en los precios públicos y las tasas del cine comercial, servicio de mercados, retirada de vehículos de la via pública y depósitos de los mismos, patronato municipal de deportes, servicio de transporte urbano de viajeros, servicios prestados en viviendas tuteladas y pisos de acogida y museo de la industria armera.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2ec634377f6fb95002559ad9736bb74f2e48845d**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400003549**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
|---|---|
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **24/07/2024 12:51:46** |

Proposamen hau eta behin betiko onartzen den araudia Eibarko Udalaren web-orrian argitaratuko dira, alde batetik, indarreko araudira eta horiek egiteko prozesuari dagozkion dokumentuetara erraz, modu unibertsalean eta eguneratuan sartu ahal izateko, eta, bestetik, hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten arauak egiten, hori guztia gardentasun-printzipioan oinarrituta.

Efizientzia-printzipioa aplikatuz, aldaketa hauekin beharrezkoak ez diren administrazio-kargak saihestu nahi dira eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

Azkenik, esan behar da proposatutako aldaketek ez dutela eragin negatiborik izango aurrekontuen eta finantzen egonkortasunean; aitzitik, hurrengo urteetan ere diru-bilketa errealitate sozial eta ekonomikoarekin bat etortzea erraztuko dute.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar, por una parte, el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración y, por otra, para que los y las potenciales destinatarios y destinatarias tengan una participación activa en la elaboración de las normas, todo ello en base al principio de transparencia.

En aplicación del principio de eficiencia, esta modificación de la normativa intenta evitar cargas administrativas innecesarias o accesorias y racionalizar, en su aplicación, la gestión de los recursos públicos.

Por último, señalar que las modificaciones planteadas no afectarán negativamente a la estabilidad presupuestaria y financiera, sino que por el contrario, favorecerán que la recaudación siga siendo en los siguientes años más acorde con la realidad social y económica.

Eibarren, En Eibar,

ALKATEA EL ALCALDE

JON IRAOLA IRIONDO

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)